

Euskara elkarteak Oraina eta geroa



M A H A I - I N G U R U A

- Juan Luis Arexolaleiba ■ Iñaki Arruti
- Karmen Irizar ■ Amaia Miner

I R I T Z I A K

- Arrasate Euskaldun Dezagun
- Euskarabila
- Berbaro
- Bagera

25 urte eta gero: Norabidea birpentsatzeko garaia

■ Malores Etxeberria, Onintza Irureta

Mahai-inguruko argazkiak: Jon Urbe / Argazki Press

Egin/eragin. Zenbateraino sortu behar dituzte euskara elkarteek euskarazko guneak eta zenbateraino eragin behar dute lehendik dauden guneak euskalduntzeko? Kultur eskaintza. Azken urteotako kultur eskaintza oparoa izan da. Zenbateraino berrikusi eta berraztertu dira ordea, duela hogeita bost urte abian jarritako ildo ideologikoak? Komunikabideak. Euskarazko produkzio osoarentzat tokirik ba al da? Galdera horiek eta gehiago erantzun dituzte mahaikideek. Bestalde, Bagera, Berbaro, Euskarabila eta AEDko kideek norberaren euskara elkartearen esperientzia kontatu digute.

Nola definituko zenukete euskara elkartea? Euskara elkartearen eredu batez hitz egin daiteke ala eredu desberdinak daude?

KARMEN IRIZAR. Ez daukat definizio bakarra. Badakit gauza izan beharko genukeela esaldi bakar batean definitzeko, baina. Urteetan erabili izan dugun definizioa ondokoa izan da: Euskaraz bizi nahi duen jendeak euskaraz bizi ahal izateko guneak eta aukerak sortzeko lana egiten duen taldea. Eta hala da neurri handi batean, baina inpresioa daukat oso motz geratzen ote den definizio hori bere horretan. Beste bi datu aipagarri daude. Batetik, erabileraren ikuspegitik egin dute beti lan elkarteek eta esango nuke erabileraren erreferente ere badirela. Bestetik, euskararen eskubideen eta konpromisoen ikuspegitik harago, elkartearen jarduna euskarak egunerokoan beste edozein hiz-

kuntzak bezala betetzen dituen funtzioetan oinarritzen da.

JUAN LUIS AREXOLALEIBA. Definizioarekin ados nago. Duela hogeita bost urte sortu ziren halako egoera bat gainditzeko. Kike Amonarriz eta beste adierazi zuten ziklo berri bat ireki behar zela egoera gainditzeko. Filosofia, antolaketa eta ekimen aldetik ezaugarri propioak izan zituen eta dituen mugimendua da. Ea eredu desberdinak dauden? Oinarriak antzekoak dituzte, baina herri bakoitza mundu bat da.

Hasieran, euskara elkartearen zabalkundea oinarrietan eta filosofian burutu zen. Ondoren, hainbat ekimenek bilakaera handia izan zuten, hala nola, komunikabideek. Beraz, elkarte batzuek oinarriak baino ekimenak landu dituzte. Herri batzuetan esan dute: “Halako oinarriaren elkartea egin behar dugu” eta beste batzuetan: “Begira, haiek aldizkaria egin dute,



Ezker-eskuin: Karmen Irizar, Juan Luis Arexolaleiba, Amaia Miner eta Iñaki Arruti.

guk ere bai". Bilakaera hobea izan dute eredu osotasunean hartu dutenek.

IÑAKI ARRUTI. Esandako guztiarekin ados. Euskara elkarte hizkuntz komunitatea da, normalizatuta ez dagoenak behar ditu tresnak normalizazio hori artikulatzeko. Artikulazio horretan eragiten dutenak beharrak izaten dira, zer sentitzen den beharrezkoago. Orain dela 50 urte, seguruenik batere teoriarik gabe baina intuizio handiarekin, beharra sentitzen zen ikastola sortzeko, belaunaldi berriak euskaraz hezteko. 25 urte geroago, behar hori asetzen joan zen heinean, beste behar batzuk zeuden. Egoera zenbat eta normalizatuagoa izan, euskara elkarten premia (eta beste gauza batzuen ere bai) txikiagoa da. Egoera normalizatueta umek etxean ikasten dute hizkuntza, helduek kalean eta jendea hizkuntza horretan bizi da. Hori da Madrilén madrildarrek egiten dutena. Hemen ez. Ume askok edo gehienek ez

dute etxean ikasten baizik eta eskolan, heldu gehienek ez dute kalean ikasten baizik eta euskaltegian, eta euskaldun askok eta askok behar dituzte esparru eta harreman sare batzuk euskaraz bizi ahal izateko.

Ereduen kasuan nik ere hausnarketa bera egiten dut. Badaude oinarri edo printzipio batzuk, maila desberdinetan barneratuak baina elkarte guztiei dagozkienak. Konkrezioa herriz herri? Pertsona, baliabide, egoera soziolinguistiko eta abarren arabera emaitza diferenteak eman ditu.

AMAIA MINER. Zaila dago ezer berritzea esandakoak esanda. Beste generazio batekoa naiz. Euskara elkarten sorrerak adolezente bezala bizi izan ditut. Doberan [Hernaniko euskara elkarte] hasieratik egon naiz, baina 16-18 urte nituen. Filosofia eta teoriaren garaia galdu egin dut. Jarraipena izan da gurea. Euskara elkarte definitzen hasita esango nuke gure ama hizkuntza normalizatzen

saiatzen den taldea dela. Badago konponente sentimental, gure hizkuntza da, ez da kultur ondare soila.

Ereduen aldetik, erabat ados. Ereduak herri bakoitzean desberdinak dira eta gainera talde bultzatzaile bakoitzaren eredia ere oso desberdina da. Interesgune desberdineko taldeak mugitzen direnean, herri berean ere, oso bide desberdinetatik joan daiteke talde bera.

K. IRIZAR. Baina oinarria berdina edo antzekoa.

A. MINER. Oinarria bai, baina egiteko moduak asko aldatzen dira. Beste kontu interesgarria da, euskara elkarteak bata besteari begira egoten gara. Gazte jendeak sartzen denean esate baterako, beste elkarteek egiten dutenari begiratzen diote. Hausnarketa momentutan badago elkar begiratzeko joera hori.

Topagunean ba al dituzue eredu tipo batzuk?

K. IRIZAR. Zer ulertzen dugu eredutaz? Ulertzen badugu helburu bera izan, baina oinarri desberdinak dituen taldea, esango nuke ezetz, oinarriak denak dira berdinak. Erabileran, tokikotasunean, aisialdian, motibazioan eta sustapenean zentratu gara. Noski, Iñakik esan duen bezala, egoera soziolinguistikoak, biztanle kopuruak, euskaldun kopuruak, udalean dagoen alderdiaren jarrerak... asko baldintzatzen dute eta horren arabera jo dugu bide batetik edo bestetik, baina oinarrian ez dago desberdintasunik.

Urtetako bilakaera izan dute euskara elkarteek. Orain, iraganarekin eta geroarekin alderatuz, zein puntutan daudela esan daiteke?

J. L. AREXOLALEIBA. AEDn [Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkarte] hainbat urtez aritu nintzen lanean, baina hamabost urte badira euskara elkarteetan zuzenean ez nabilela lanean. Beraz, gauzak ibili direnei eta dabiltzanei errespetu osoz eta animoak emanez esango ditut.

M a h a i k i d e a k

■ JUAN LUIS AREXOLALEIBA



AED euskara elkarteetan eta Emun-en lanean aritua

Arrasaten (Gipuzkoa) jaio zen 1964an eta bertan bizi da. Geografia eta Historia lizentziatua da. Urte askotan euskararen inguruan aritu da lanean. AED (Arrasate Euskaldun Dezagun) euskara elkarteetan zazpi urtez aritu zen dinamizatzaile. Arrasateko Udalean sei urtez zinegotzi izan zen. Azken hiru urtetan Emunen aritu da, lana euskalduntzeko kooperatiban. Orain kooperatibagintzaren gizarte erantzukizunarekin zerikusia duen proiektu batean hasi da lanean.

■ IÑAKI ARRUTI



Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuko arduraduna

Lasarte-Orian (Gipuzkoa) jaio zen 1966an eta bertan bizi da. Ikasketaz biologoa da. 1988tik Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuko arduraduna da. 1991n, Lasarte-Orian Ttakun Kultur Elkartearen sortzen ibili zen eta zuzendaritzako kidea izan da 2004ra arte. Topagunearen (Euskara Elkartearen Federazioa) sorreran aritu zen 1996an. 1996tik 1999ra Euskararen Aholku Batzordeko kidea izan zen. Hizneteko irakaslea da beratu sortu zenetik.

Euskara elkarteetan denetik egongo da, baina nik ezagutzen dudanagatik zonalde euskaldunetan eta puntan ibilitako hainbat elkarte egoera ahul eta kez-kagarrian dago. Dinamizatzaileak, liberatuak edo koordinatzaileak, gehiegi aldatzen dira eta era berean pisu handia dute. Boluntarioak edo militanteak maila apalean dabilta, ez doaz gorantz. Elkarteak zer edo zertan ondo baldin badabilta da euskaldunentzako kultur eskaintza bideratzen. Baina *impasse* egoera sumatzen dut. Euskara elkarteek bi zutabe dituzte: euskaldunei euskaraz bizitzeko aukerak ematea eta euskararen akuilu izatea. Sentsibilizazio edo akuilu lana askotan askoz ere lan inkomodoagoa da, ez da lan puntuala, ondo egin behar da. Alabaina, ez dakit elkarteak ez ote diren zentratu kultur eskaintza edo zerbitzuak areagotzen. Horrekin batera norabidea jarri eta akuilu lana egin behar da.

Euskara elkarteekin lortu dena da egiturak jartzea pertsonen gainetik. Lehen pertsona gutxiren arabera taldearen egoera aldatzen zen.

Duela 25 urte elkarteak egoera bati erantzuteko sortu ziren, baina kontuan edukita elkarteetan eta

gizartearen bilakaera, badago oinarri berri batzuetan sakontzeko premia.

I. ARRUTI. 80ko hamarkadan elkarte gutxi izango ziren, 90ean eklosioa izan zen, 97an Topagunea... Argi dago momentu hau ez dela eklosio puntua euskara elkarteetan kopuru aldetik eta dinamika aldetik ere ez. Egonkortasun egoeran daude, hitzak eduki ditzakeen gauza txar eta onekin. Egonkortasuna toki batzuetan subsistentzia da eta orduan karga negati-boa du. Beste toki batzuetan egonkortasuna da maila bat lortu eta dinamika normalizatu xamar batzuekin eragiten aritzea. Hori ere ezin dugu beti kritikagai jarri. Ezin da beti halako estasi egoeran, emozio betean ibili. Denek daukate beren erritmoa, eta elkarte baten bizitzak ere bai.

Bestea da kanpo faktoreen azterketa. 90eko hamar-kadan gizartearen borondatezko zerbait egitea balioen eskalan gaur egun baino askoz gorago zegoen. Kirol elkarteetan zer pasatzen da ba? Non dago kirol elkar-te potentea zuzendaritza borondatezko indartsua daukana eta belaunaldi berriak ate joka dituen?

■ KARMEN IRIZAR



Topaguneko lehendakaria

Azkoitian (Gipuzkoa) jaio zen 1973. urtean eta bertan bizi da. Euskal eta Ingeles Filologiak ikasiak ditu. Gaur egun irakaslea da Azpeitiko Iraurgi ikastetxean. Azkoitiko Maxixatzen euskara elkarteko sortzaileetakoa da eta sortu zenez geroztik lehendakaria. Topaguneko zuzendaritzan dago 2003az geroztik eta federazioaren lehendakaria da 2006. urteaz geroztik. Euskadi Irratian *Arratsaldekoa* irratsaioan kolaboratzen du astero.

■ AMAIA MINER



Arkitektoa eta Doberako kidea

Andoainen (Gipuzkoa) jaio zen, 1975ean eta Hernanin bizi da. Arkitekturan lizentziatua da eta gaur egun Zarauzko Udaleko arkitektoa da. Hernaniko Dobera euskara elkartearen urteak daramatza. Gaztetxo zela gerturatu zen eta 2001ean elkarteko zuzendaritzan sartu zen. 2007ra arte lehendakaria izan da.

“Zonalde euskaldunetan eta puntan ibilitako hainbat elkarte egoera ahul eta kezkarrian dago. Dinamizatzaileak, liberatuak edo koordinatzaileak gehiegi aldatzen dira eta era berean pisu handia dute. Elkartek zer edo zertan ondo baldin badabilta da euskaldunentzako kultur eskaintza bideratzen. Baina *impasse* egoera sumatzen dut”

J. L. AREXOLALEIBA

Dena dela, azkena esan duzun horrekin [Arexolaleiba] konforme nago. Badago bidegurutze bat sortu ziren oinarri eta premia batzuekin. Bidegurutze horretan, hor gabilta errotondan, eta nonbaitetik atera behar dugu.

A. MINER. Batez ere dibertsifikazioarena aipatuko nuke. Talde asko ari dira lanean euskararen inguruan: ikastetxeak, udaletxeak, euskaltegiak, euskara elkartek... Denen lana kontaktuan dago. Bestetik, modan dauden gaiak aldatu egin dira, gizartearen beste kezka batzuk dauzkagu: berdintasuna, ekologia, partehartzea... Militantzia, pixka bat goitik behera joan da, baina interesguneak aldatu egin dira edo gehiago daude. Jendea sakabanatu egiten da eta horrek indarrak asko jaisten ditu. Esan duzu borondatezko lanean ari direnak maila apalagoan ari direla, ordu gutxiagoz, indar gutxiagoz...

J. L. AREXOLALEIBA. Pertsona kopurua esan nahi nuen.

A. MINER. Pertsona kopurua bakarrik ez, lana egiteko modua ere bai. Zuzendaritzako kidea egon daiteke egun guztia elkartearen gainean edo erabakiak hartzera mugatu. Bestalde, ulergarria da, euskara elkartearen lana zaila da, ez dira emaitzak ikusten, ez

segituan, eta horrek ez du halako emoziorik sortzen.

I. ARRUTI. Elizari gauza bera gertatzen zaio eta begira zer den. Estructura du. Esan nahi dut beti barruko aldagaiekin saiatzen garela esplikatzeko eta badago ikuspegi makrogoa ere.

A. MINER. Kirola, auzo elkartek... dena dago gain-beheran.

I. ARRUTI. Galdera beste era batera egin daiteke: Ba al dago gizarte mugimendurik edo elkarerik izugarritzko eklosio puntua bizi eta transmisio gaitasun ikaragarritzkoarekin?

A. MINER. Ez. Marketin askorekin bai batzuk.

K. IRIZAR. Euskara elkartearen azpiegiturak finkatuta daude, baliabide materialak dituzte, humanoak, lan taldeak osatuta daude. Estructurak mantentzeko orain ez litzateke problemarik egongo. Topagunea ere hor dago.

Filosofiarik dagokionez gaude hanka motzen zurrerik. Zuek urratu zenuten bidea [Arrutiri] begiral aurrez zeuon burua oso-oso ondo jantzita eta askok kopiatu egin genuen eta gerora jantzi genuen gure burua. Azken hamar urteetan Topagunea osatzen eta euskara elkartearen egitura sendotzen zentratu gara eta jantzearen alde hori nolabait ahaztu egin dugu. Momentu honetan, Topagunean aipatzen dugu, beharbada hasi beharko dugula berriro oinarri horiek finkatzen. Hasi beharko dugula elkartearen langileei euskara elkartearen egiteko modua eta filosofia transmititzen. Abiadurak berak ez digu utzi horretan jantzen langileak.

Aurrera begira zer? Duela 25 urte bezala elkarteeri dagokie oso-oso erne egotea. Sekulako abiadan doa bizitza. Beraz, azpiegiturak ados, arriskua izan daiteke horretan zentratzea, baina urte batzuetan beharrezkoa izan da, egitura sendotu gabe nekez egin daitekeelako aurrera. Momentua iritsi da filosofian berrirakurketa, berrazterketa egiteko, eta geure burua jantzeko.

Beren helburuak lortzeko euskara elkarrekin adarrak antolatu dituzte, tamaina eta izaera desberdinetakoak:

hizkuntza zerbitzuak, aisialdi taldeak, taberna edo antzokiak, komunikabideak... Ba al dago egiterik horien baloraziorik?

I. ARRUTI. Balorazio honen zati bat zenbakiz hornitu liteke. Hortik harago, lehendabiziko balorazioa ona da. Euskarazko aisialdia sortu eta bersortzeko motor nagusietakoa bihurtu dira euskara elkarteak. Begirale multzo ikaragarriak pasa dira herrietan. Horietako batzuk bihurtu dira gero eragile. Gabeziak ikusten ditut, baina hori gabe pentsatzea gaur egungo errealitatea, atzera egitea irudituko litzaidake. Herrian [Lasarte-Orial] kafe antzoki txiki bat sortu genuen, oso balorazio positiboa egiten dugu, erreferente bezala balio izan digu, bilgune, sorgune, belaualdi berrientzako erakarpuntu izan da. Bestea komunikabideena da. Azken hamar urteetan zer bide egin duen, bolumena ikusita, irakurketa positiboak egitearen aldekoa naiz.

Horretaz aparte, zerbitzuak euskaraz jasotzeko egin den ahalegin horrek badu beste aldagai bat elkarteak sendotzearen bidearekin. Oreka bilatzearen aldekoa naiz, alegia, txiringitoak (tabernak, aisialdiko azpitaldeak, komunikabideak) sortu ditugu eta zer egin dugu, indar gehiegi jarri horretan ala ez? Beti ez bada ere, nik uste dut badagoela korrelazio bat indartsuen dauden elkarten eta zerbitzuak sortzen ahalegindu diren elkarten artean. Momentu batzuetan garrantzitsua da oinarri eta azpiegitura horiek sortzea. Noski, zure indar guztiak horretan xahutzen badituzu, gaizki zabilta, baina soilik ekin-tzak egin eta egin bazabiltza ere, egiturak sendotze-ari arretarik jarri gabe, pertsona batzuen indarrak ahitzen direnean, zailagoa izango da lanean jarraitzea.

A. MINER. Nahiko ados. Gure esperientzia batez ere komunikabideena izan da. Proiektu fuertea, iraultza txiki batzuk eragin dizkigu, beldurrak eta ezinak ere bai, baina horiek denak gaindituta izugarritzko indarra eman dio elkarteari; bazkideak ia bikoiztu egin dira, herritarrak erakarri ditugu (jende askok elkartea ezagutzen du komunikabidea ezagutzen duelako). Komunikabideak prestigioa hartu du. Tarteka horrelakoak egitea beharrezkoa da beste esparru batzuetara iristeko, beste ikuspegi batzuk izateko... Kostuak ditu, guk sufritu dugu, baina buelta emanez gero

“**B**idegurutzean gaude. Bisiotan, diskurtsotan, oinarri ideologikoak berregosten dago lan handia. Topagunearen kasuan esate baterako zerbitzuetan plus bat baino minus bat nahiagoko nuke eta aipatutudan gairako baliabideak jarri, eta ea asmatzen den”

I. ARRUTI

merezi du. Guk ez daukagu damurik. Tabernarik ez daukagu, herrian badago proposamena kultur gune bat egiteko, baina guk erabaki dugu eztabaidetan kide bat gehiago izatea, ez dugu protagonismoa izango, energia guztiak gauza batean sartu eta horrek ekartzen dituen onuretan ez delako beti asmatzen.

K. IRIZAR. Egin daiteke balorazio kuantitatiboa eta eman daitezke kopuruak: hainbeste elkarte, hainbeste irrati, aldizkari... Eragina nabarmena da. Euskarak duela 25 urte presentziarik ez zuen eremuetan orain bada: aldizkariak, telebista... Baina kopuruak baino interesanteagoa da jakitea elkarteek zer eragin izan duten jendeak euskarari buruz duen pertzepzioan eta nola eragin duten euskararen bilakaeran. Topaguneari diogu soinujolea bezala belarriz jotzen ari garela. Ari gara esaten euskara elkarteek erabilera sustatu dutela, baina hori esaterakoan belarriz ari gara. Ez dago azterketarik esateko hori hala den ala ez den. Ikerketa lerroa ireki beharko genuke ikusteko elkarteek zernolako eragina izan duten herriko euskararen garapenean.

J. L. AREXOLALEIBA. Aipatu da emaitzak ez direla ikusten laburrera. Erabilera indizean urratsak ematea zaila da, baina beste gauza batzuetan emaitzak ikusten dira, adibidez komunikabideetan. Herrietan telebista, irratia, aldizkaria sortzen denean kristoren eragina du, lehen ez zegoen eta orain badago.



Lehen planoan
Karmen Irizar
Topaguneko
lehendakaria.

K. IRIZAR. Badago daturik esateko kristoren eragina daukala?

J. L. AREXOLALEIBA. Zenbat dira, ehun eta piko mila astero zabaltzen diren aldizkariak? Orain nire kezka: *Diario Vasco* adibidez, beste edozein egunkari baino gehiago saltzen bada herri horretan euskara elkarteen lana bada komunikabide horrek euskarari ematen dion tratamenduan, kazetariengan, arduradunengan eragitea. Euskara elkarteek bi funtzio betetzen dituzte; egitea eta eragitea.

Eta galderaren inguruan honakoa: batez ere herri ertain eta handietan zer behar ditugu euskara elkarte erraldoiak, ekimen piloarekin, egitura sendoekin, jende piloarekin edo ekimenak sendotu ahala autonomiaren bidea hartuko dutenak? Arrasaten, AEDren baitan jarraitu beharrean, ekimenak indartu ahala, bakoitzak bere bidea hartu zuen. Horrek elkarteari sortzen diren hutsuneei erantzuteko malgutasuna ematen dio.

A. MINER. Kontua da zeinek eutsiko dion horri. Talde horietan jendea biderkatzen den ala errepikatzen den. Euskara elkarteen arazoa hori da. Nahiz eta saiatu taldeak sortzen edo independentzia hartzen, azkenean horietara jendea erakartzea da zaila. Jende berak bukatzen dugu hiru gauzetan. *Hernaniko Kro-*

nikarekin egon zen zalantza zenbateraino aldendu eta gerturatu. Aukera egin zen Doberatik koordinatzeko eta gaur da eguna ez digula inongo lanik ematen. Nahiz eta egitura berririk ez sortu autonomia da.

Eraginari dagokionez, Durangoko Berbaro euskara elkartekoek Topaguneko jardunaldietan esan zuten Plateruena Kafe Antzokian jardunaren ehuneko 80a gaztelaniaz dela. Helburu batekin sortzen duzu, baina gero agian ez du helburu hori betetzen. Beharbada diru iturria da eta justifikadaiteke...

J. L. AREXOLALEIBA. Eta taberna arruntetan?

K. IRIZAR. Horiek ez daukate helburuen artean euskararen normalizazioa eta euskara elkarteek bai. Bai, kezkgarria da, baina funtzio horretaz gain betetzen du beste bat Plateruenak; hiztun komunitatea trinkotzeko balio du, Durangaldean euskal kulturaren erreferente nagusia da. Erreferentea izatea oso erdaldunduta dagoen ingurunean oso positiboa da. Zuk nabarmendutako datuan zentratuko bagina beste balore positibo guztiak bertan behera geratuko liriteke.

“Azpiegiturak ados, arriskua
Aizan daiteke horretan
zentratzea, baina urte
batzuetan beharrezkoa izan da,
egitura sendotu gabe nekez egin
daitekeelako aurrera.
Momentua iritsi da filosofian
berrirakurketa, berrazterketa
egiteko, eta geure
burua janzteko”

K. IRIZAR

I. ARRUTI. Helburu betetze mailan, Gorkak (Barruetabeña, Berbaroko kidea) Plateruena sortu zutenean nahiko zukeena da hara sartu eta espazio oxigenatu hori edukitzea. Hori ez du lortu Durangoko ikastolak, ez du lortu Plateruenak eta ez du lortuko seguruenik hurrengo sortzen den ezerk.

K. IRIZAR. Hori ez dago ezta Urola bailaran ere.

I. ARRUTI. Baina kontua da, lehen baino hobeto gaude edo ez?

K. IRIZAR. Hobeto gaude, baina ez daukagu datu zehatzik.

I. ARRUTI. Bat emango dut nik. Plateruena inguruan diskoteka zegoen. Diskotekak eta Plateruenak tabernako zerbitzuaz gain, bilgune “kultural” bat zeukaten belaunaldi gazte piloarentzako. Plateruengan biltzen diren gazteei euskal kulturako produkzioak zerbaitetan eragiten die? Emaitza ezin dugu zenbakitan jarri, baina hor bizitzen diren esperientzietatik izango dute onurarik belaunaldi berrietan? Baiezkotan nago. Ni Durangokoarekin geratzen naiz. Irudika dezagun Durango Berbarorik gabe, Plateruenerik gabe, herri aldizkaririk gabe eta ez dakit zer gabe...

Deabruaren abokatuarena egingo dut. Elkartearen egiturak horrelako kargak bere gain hartu gabe elkar teek beste gune batzuetan eragin izan balute?

I. ARRUTI. Egin/eragin dikotomia da hori. Atzera begiratuz gero, egin eta eragin oreka horretan, zergatik ez genituen ikastolak sortu gabe utzi eta beste eskoletan eragin euskaraz irakas zezaten? Ala goazen autozentratzera, katalanek esaten duten moduan, eta jar ditzagun erdian guk sortutako ikastolak, komunikabideak edo dena delakoak eta hori, egitea alegia, izango da eragiteko modurik onena. Komunikabideekin zer egin da? Zenbat euskara elkarte eta euskara elkarte aurreko saiatu da *Diario Vasco* kronika hori euskaraz egin zedin, ondo edo gaizki, eragiten? Egin ez bagenitu *Argia*, *Berria* eta euskarazko herri aldizkariak, egitera beharrean eragitera dedikatu izan bagina, lortuko ote genuen? Mugituko ote genituen *Gara*, *Deia* eta ez dakit zein beraien hizkuntza praktiketatik? Egin eta eraginen arteko horretan ez daukat batere damurik. Beste gauza bat da orain hainbat gauza eginda dauzkagunean, autozentratutako mugimendu eta erakundeak dauzkagunean, eragiteari eta nola eragiteari beste lan lerro bat irekitzea. Atzera begiratuta, ondo egin da orekan indarrak jartzean. Beste gauza bat da denak ezin duela horrela izan, alegia, ezin duzu errealitate osoa birsortu euskaraz, errealitatea bikoiztea izango litzatekeelako. Oreka bilatu behar da: sortu zerbait ona erdian eta gero eragin. Teorian oso erraza ematen du, baina praktikan zaila da.

A. MINER. Bereiztu behar da non eragin daitekeen eta non lanak ez duen hainbeste merezi. Instituzioetan, administrazioan eragin beharra dago eta pribatuetan eragin dezakezu eragin dezakezuna.

K. IRIZAR. *Diario Vascon* eragiterik merezi du? Nik uste ezetz. Aldiz, Jaurlaritzatik XXI. mendeko hizkuntza politika berria egitera doazen honetan, eragitea komeni zaigu eta hor eragitea badaukagu, hizkuntza badelako beraien helburuetako bat.

Taberna eta antzoki horiek nola ikusten dira gaurtik begiratuta?

“**M**ilitantzia pixka bat
goitik behera joan
da. Ulergarria da, euskara
elkarteen lana zaila da, ez dira
emaitzak ikusten, ez segituan,
eta horrek ez du halako
emoziorik sortzen”

A. MINER

J. L. AREXOLALEIBA. Bilboko Kafe Antzokia izan da erreferentea. Arrakasta itzela izan du eta dauka behar besteko egitura eta aurrekontua izan dituelako. Hemen apustua egiten da edo ez da egiten. Bestalde, kezagarria da esate baterako Plateruenan ehuneko laurogei erdaraz egitea. Durangon edozein tabernatan gaztelaniaz ehuneko laurogei izatea asko iruditzen zait. Galdera da: Plateruenan ehuneko hogeiei egiten bada euskaraz beste tabernatan zenbat egiten da?

I. ARRUTI. Durangoko ikastolako gurasoen artean ehuneko zenbatetan egiten da euskaraz?

K. IRIZAR. Ehuneko hamabostean edo?

I. ARRUTI. Iruditzen zaigu erakundeak ez dakit zer hizkuntza ohitura ekartzen digula. Ez dago korrelazio zuzenik, eragina izan dezake baina xirimiria bezalakoa da.

K. IRIZAR. Gestioaren alderditik aztertuko ditut antzokiak. Elgetakoa esate baterako Udalarekin elkarlanean egindakoa da, eraikina bera Udalarena da, baina kudeaketa euskara elkartearen esku dago. Aldiz, Plateruena erakunde pribatuarena da, Berbarorena. Topagunean bertan ere, euskara elkarteak buruz kezka hori izaten dugu: autogestioa izan beharko luke ehuneko ehun, erakunde publikoekin zenbaterainoko harremana izan beharko genuke, zertan bai, zertan ez, ekonomikoki zenbateraino... Bi proiektu horiek bi kudeaketa desberdin erakusten

dizkigute. Berri xamarrek dira eta asko daukagu ikasteko etorkizunean.

Bestetik, Iban Arantzabali entzun izan diot areto handiak eta dotoreak beti izan direla kanpoko kulturgileentzako eta gure ekitaldientzako frontoiak edo plazak. Bi areto handi erreferente izateak euskal kulturari beste dimensio bat ematen dio, ez kopuruan, baina bai kultura eta kulturgileak ikusteko moduan, eroso eta baliabidez hornituta, alegia.

Euskara elkarteak ikusten dituzue antzoki horien motor?

A. MINER. Herri bakoitzean errealitate bat dago. Herrian daukagun sentsazioa da kultur arloan paper hori dagoeneko beste batzuek betetzen dutela, guk konplementatu egiten dugu. Kultur ekintzak egin ditugunean konturatu gara horrek asko jaten duela.

I. ARRUTI. Bilbo, Kafe Antzokiarekin ala gabe hobeto?

K. IRIZAR. Antzokiarekin.

Eta Arrasate?

J. L. AREXOLALEIBA. Antzokiarekin.

Arrasaten dagoen kultur eskaintza ez da behar bezain euskalduna, eta hala ez bada, euskara elkarteak ezin du eragin hor bere egitura sortu gabe?

J. L. AREXOLALEIBA. Antzokiak ez du ezer ordezkatu behar, osagarria izango litzateke. Euskalgintza-aren erreferentea litzateke.

Kontrajarrian dirudi egile-eragile kontzeptuekin.

J. L. AREXOLALEIBA. Zerbitzari berriek euskara erabil dezaten lan egin beharko da, tabernan lehen hitza euskaraz egiteko lanean jarraitu beharko da... baina bata ez doa bestearen kontra.

K. IRIZAR. Espazioak guk sortuko ditugun ala ez? Azkoitian azken hamabost urtetan etorri da Benito

[Lertxundi], gero etorri zen Benito eta azkena uste dut Benito etorri dela. [Barrez hasi gara denok]. Hortik kanpo etorri direnak euskara elkarteak ekarri ditu, eta ez da Udalean proposamenik egin ez dugulako. Azkoitian bada kultur programaziorik egiten duen talderik, baina hamarretik sei da gaztelaniaz, hiru ingelesez eta bestea izan daiteke beste edozein hizkuntza, euskara tartean behin. Euskararen ikuspegi eta zentraltasuna oraindik orain herrietan euskara elkarteek eta euskalgintzako taldeek dute, Udalek eta kultur taldeek... nik zalantza asko ditut.

Euskara elkarte askoren ardatz bihurtu ziren tokian tokiko komunikabideak eta euskarazko sare indartsuena hori zela adierazten zen Topagunetik. Hedabide horietako asko eskualdeetako *Hitza* bihurtu dira; berriak ere sortu dira... Nola ikusten da eboluzio hori?

J. L. AREXOLALEIBA. *Berriak*, beste edozein komunikabide bezala, eskubide osoa dauka eskualdetako *Hitzak* sortzeko. Euskarazko komunikabideek daukaten arazo bat da ez direla diruz errentagarriak. Diru-laguntza publikoak behar dituzte eta hor dago arazoa, ez gara ari eskubide kontuez diru publikoaz eta eraginkortasunaz baizik. Leihatilan kompetentzian ari gara.

Beste gauza bat. Euskalgintzan gabiltzan denok apaltasun gehiago behar dugu. Norberak eragina daukala eta gauzak ondo egiten ditugula uste dugu, baina guztion artean ere gizartean oso txiki gara. Bakoitzak bereari eutsiz, elkarrekin dinamikak egin behar ditugu euskal komunikabideak indartzeko eta daukagun eragina biderkatzeko.

I. ARRUTI. Kanpotik begiratuta, atzera begiratuta, uste dut gauzak ez ditugula ondo egin. Zuk esanda-koekin lotuta dago, diru-laguntza publikoak, ez dago interlokutoreta bakarra... Bestetik, euskalgintzaren gaitz endemikoa perspektiba falta da, munduari, eta Europari, eta gero Euskal Herriari begiratzen badiogu ez gara jabetzen 600.000 hiztun garela, gure hizkuntza komunitatearen indar erlatiboak despistatu egiten zaigu. Gure txikitasunaren jabe ez gara eta arrogantzia gehiegirekin aritzen gara gehienetan.



Mahai-inguru bukaerarako Arexolaleiba pozik zen euskara elkartei buruzko bere usteek Arruti eta Irizarrenekin bat egiten zutelako.

Aurrera begira, zenbat komunikabide behar diren udalerrian, eskualdean, zenbat diren bideragarri? Hausnarketa horretan parte izan daitezkeen arteko hausnarketa komunak egin eta soluzio konpartituak hartu. Ez daukat proiektu baten edo besteren onurarekiko apustu erabatekorik, baina egiteko modu horiek adostuak eta konpartituak izan behar dutela bai.

A. MINER. Ez ditut besteen errealitateak ezagutzen. *Hernaniko Kronikarena* kontatuko dut. Esparru propioa sortu zuen eta geroztik etorri dira besteak,

“**I**bilaldi baterako lortzen den dinamikaren ehuneko hamarra parametro iraunkorretarako lortuz gero nola aldatuko liratekeen gauzak! Zer aldatu behar da hori lortzeko?”

J. L. AREXOLALEIBA

Hitza dela, eskualdeko prentsa edo telebista... Distantzia pixka batekin hartu izan ditugu. Guri tokiko-tasunak erakutsi digu balio digula eta beste programek ez ziguten sinesgarritasun hori ematen. Presioak jasan izan ditugu, baita bazkideen aldetik ere. Noski, diru-laguntzak, diru bilketak... askotan solapatzen dira, batak bestea kaltetzen du eta kompetentzia zuzena dago arlo ekonomikoan. Informazioan ez luke egon behar, gehitu egiten da.

K. IRIZAR. Barrutik bizi izan dut. Oso traumatikoa izan zen, negoziazioek luze jo zuten eta ez genuen adostasunik lortu. Zuen galdera zen, nola ikusten da eboluzioa? Ez da eboluziorik egon, eboluzioa da natural gertatzen den zerbait; *Hitza* ez da naturala izan. Bestalde, ez ginen denok sartu, Azkoitiko *Maxixatzen* eta Orioko *Karkarak* kanpo geratzea erabaki genuen. Urolan ez ginen akordiora iritsi, batez ere alderdi ekonomikoa ez genuelako garbi ikusten. Proiektu komunikatibo bera, ze aldizkari tipo izan beharko zuen hamabost egunetan adostu genuen. Erabaki ahalmena izan zen arazoa.

Dena dela, pasa den historia da, harremanek neurri batean gaiztotuta segitzen dute eta denborak sendatuko ditu, baina ez da logikoa gaur egun egiten ari garena. Ez da bideragarria Inākik esan duen moduan



600.000 hitzun dituen hizkuntza batean gauza bera egiten edukitzea hainbeste jende. Informazio bera ematen dute Azkoitian *Diario Vasco*, *Hitzak* eta *Maxixatzenek*. Ez daukagu ez dirurik ez eta baliabide fisikorik ere horri eusteko. Alde denetatik sartu genuen hanka, ez genuen perspektibaz begirutzen jakin, norbera bere gotorlekuan jarri zen.

Aurrera begira, giroa baretuko balitz, iruditzen zait hausnarketa honekin hasteko momentua dela, tokiko prentsaren esparru komunikatiboa nola sortu. Hori ez dugu egin beharko norberarentzat ibilbide logikoa delako. Jaurlaritzak HAKOBaren bidez komunikabideez txostena egin du eta hortik atera dituzten emaitzekin komunikabideei buruzko eszenario berria proposatuko dute. Beraz, logikak berak agintzen duelako eta Jaurlaritzatik ere hori datorrelako elkarrekin hitz egitera eta bat egitera derrigortuta gaude.

Herrietako eragile batzuek (udalek, ikastetxeek...) sortu dituzte orain arte aipatu ditugun antzeko zerbitzuak. Non kokatzen da euskara elkarrekin egitekoa?

A. MINER. Ez da interferentzia handirik egon eragileek sortzen dituzten eta euskara elkarteak sortzen



dituztenen artean. Nik uste hasieratik elkarlana egon dela, oso ondo uztartzen da lan hori, ez da errepikatzeko. Batzuetan gu goaz ideiekin eta bestetan alde-rantziz, inor ez da guztiz autonomoa. Eragile izatearen funtzio hortaz oso kontziente gara.

K. IRIZAR. Elkarlanean sortu dira zerbitzu horiek, nahiko modu naturalean. Aurrera begira zer dagoen? Erabileran aitzindari izan ziren euskara elkarteak eta erabilerari lotuta erronka asko dago, esparru asko dago eragiteko. Euskara elkarteak oso erne egon beharko du eta esparru berri horietara iristeko bideak zabaldu beharko ditu. Beste eragile batzuekin topo egingo dugu, seguru, eta elkarlanean segi beharko dugu.

J. L. AREXOLALEIBA. Batetik, adi, badago arriskua hainbat zerbitzu eskaintzerakoan administrazioaren eta batik bat udalen eskulan merkea izateko.

Bestetik, non kokatzen den euskara elkarten egitekoa? Egitekoa orain dela 25 urte jarri zen bera da: normalizazio prozesuaren gidaritzatza lana egin, prozesuari osotasuna eman, norabidea finkatu. Herri askotan egitura eta dinamika zabala dago, baina gidaritzatza falta da. Gero betiko galdera dago: Nork gidatu behar du? EBPNren bidez administrazioak egin behar

“Igoal egin daitekeen gauzarik interesgarriena da euskaltegiko ikaslearen lagun egin eta hura euskaldun bihurtzeko prozesuan laguntzea”

I. ARRUTI

Euskara elkarteek
sortutako kafe
antzokiez eta haien
egitekoez luze aritu
ziren lau mahaikideak.

al du? Nire ustez, administrazioak badauka zeregina eta euskara elkarteek zeregin kualitatibo hori bete behar dute, euskalgintza osoaren bateragile izan, osatu eta motore lana egin.

I. ARRUTI. Beste hari batetik helduko diot gaiari. Euskara elkarteek harreman interpersonalei heldu behar ote dieten uste dut. Zerbitzugintzan gabiltza eta lan ildo horretan jarraitu beharko da, baina bestea da, kanoi bidezko gatatzatik (ez gerra delako) buruz burukora jaitea. Hau da, orain arte kanoiekin ibili gara; gaztelaniak irakaskuntza dauka eta guk kanoi handiagoak jarri behar genituen, alegia, ikastolak. Komunikabideekin berdin... Igoal pertsona arte-kora jaitsi behar dugu, zu eta ni, etorkin berri hori, euskaltegian ikasten ari den hori eta ni. Ez dut gehiago egin nahi euskararen alde, alegia, euskara gungandik kanpo dagoen zerbait moduan hartzen dugu. Hernanin euskararen alde egitea zer da? Amaiak dirua lortu behar du, firma bat bota behar du? Iparraldean ikastola sortu ezinik dabilzanek bai, baina Hernanin? Igoal egin daitekeen gauzarik interesgarriena da euskaltegiko ikaslearen lagun egin eta hura euskaldun bihurtzeko prozesuan laguntzea.

K. IRIZAR. Mintzapraktika?

“**E**gitasmo askok dedikazio handia eskatzen dute eta ez dago boluntariorik horretarako, eta daudenak gauza askotan sartuta daude. Jendea prest dago ekintza puntualetan laguntzeko, baina hori kudeatu egin behar da”

A. MINER

I. ARRUTI. Adibidez. Euskaltegikoarekin, mutil lagunarekin edo koadrilakoarekin. Euskararen alde egiteak norberaren barrura ekarri hori eta bere eguneroko praktiketan aldekotasan hori gauza terrenalagoetara eta pertsonalagoetara eraman.

J. L. AREXOLALEIBA. Euskara elkarteek eta euskalgintzak orokorrean zabaldu dezake zuk esandako mezua.

I. ARRUTI. Zabaldu baino lehenago bizi egin behar da, barneratu. Esate baterako, Arrasateko euskalgintzako mila pertsonen artean erdarazko komunikabideak ohiz kontsumitzen dituen jende pilo dago, harreman interpersoneletan euskaraz egin ditzakeen gauza pilo euskaraz egiten ez dituen... Planoz jaitsi gaitezke, sozialagotik psikologikoagora, galtzak jaitsi gabe, gai hori ateratzen denean errendizio parame-trotan ari garela baitirudi. Hausnarketa honek inter-bentzio programak oso urrutitu ditu.

K. IRIZAR. Eta emaitzak ere oso urrutira ikusiko dira.

I. ARRUTI. Igoal tangibleagoak dira.

Aurrera begira nola ikusten da uztartzea sortu diren lanpostu profesionalak eta lan boluntarioak?

A. MINER. Bien arteko oreka lortu behar da, garbi dago egiten diren egitasmo asko pentsatuta daudela lanordutan egiteko, dedikazio handia eskatzen dute eta ez dago boluntariorik horretarako, eta daudenak gauza askotan sartuta daude. Jendea prest dago ekintza puntualetan laguntzeko, baina hori kudeatu egin behar da. Adibide on bat: Hernaniko mintzalagunak azken urteotan lau-bost euskaldun zahar juntatzen ziren. Aurten, kanpaina egin dugu eta ordura arte proportzioa 5-40 baldin bazen 18-16 bihurtu zen, ia euskaldun berri baino zahar gehiago.

K. IRIZAR. Ez dakit bereizketa garbirik egin daitekeen euskara elkarteetan profesional eta boluntarioen artean. Norbaiti entzun diot esaten: “Zer uste duzue kobratzen dugunok lan boluntariorik ez dugula egiten ala?”. Euskara elkarteetan lanean has-ten denak nolabaiteko atxikimendua daukalako da. Beraz, profesionala bai, baina ez diruaren truke bakarrik ari dena, hori aitortu behar zaie.

Eta boluntarioena. Askotan pentsatu izan dut, Topagunean esate baterako Jasone [Mendizabal, zuzendaria] hor dago, gu zertarako? Kafea hartzeko eta zein ederki ari zareten esateko, hortik gora... [Barrez hasi gara denok]. Jasonek esaten du ordea, “eguneroko lanean sartzen gara gu eta ahaztu egiten zaigu herrietan zein errealitate dituzuen, ze zailtasun...”. Alegia, profesionalak eguneroko zurrunbiloak irentsi ez ditzan errealitatearekiko lotura egin.

Bestalde, bien lana da elkartearen filosofiarik eus-tea. Boluntarioen lan zentrala hori da.

J. L. AREXOLALEIBA. Batarik edo besterik gabe ezin da ezer egin, bi horiek uztartzean datza euskara elkartearen arrakastarako gakoa. Baldintzak sortu behar dira profesional egokiak eta luzaroan jardungo dutenak izateko elkarteetan. Askotan, urteetan eramangarri ez diren eritmoetan ibiltzen da jendea lanean. Profesionala zaindu egin behar da, eta bestetik, eskatu behar zaio proiektuan sinestea, langile eta partaide izango litzateke azken finean.

Beste hausnarketa bat lan boluntarioaz. Esaten da gizartea aldatzen ari dela: “Lehen bai baina orain ezin da”, dio jendeak. Orain dela hogeitau urte

ere ez zen erraza boluntarioak inguratzea. Ezin dugu esaldi hori besterik gabe onartu. Salto baten premia ikusten dut, lan boluntarioa egokitu egin behar dugu, motibazioa landu. Lan militantea ez da sufrimenduarekin lotu behar, ez dauka zertan horrela izanik.

Beste zalantza bat: Zer gertatzen da adibidez Ibilaldia bezalako gauza puntual baten inguruan, antolaketa lanetan, horrenbeste jende elkartzeko eta gero lan iraunkorrerako horren jende gutxi izateko? Ibilaldi baterako lortzen den dinamikaren ehuneko hamarra parametro iraunkorretarako lortuz gero nola aldatuko lirakekeen gauzak! Zer aldatu behar da hori lortzeko?

I. ARRUTI. Orain arte esandakoarekin konforme. Gertatzen dena da, bai boluntarioaren eta baita profesionalaren aldean, desberdinak direla proiektu bat sortu, bizi eta erein duen hasierako belaunaldia eta handik hogeitaz urtera lanean ari diren boluntario eta profesionalen bizipenak. Proiektuarekiko atxikimendua diferentea da. Egin nahi den horren bisioaren edo misioaren ikuspegia nola transmititzen da?

A. MINER. Ezin da transmititu. Belaunaldi bakoitzaren proiektua desberdina da.

Zer ekartzen diote euskara elkarteek Topaguneari eta zer Topaguneak euskara elkartei?

I. ARRUTI. Sortu zenean euskara elkarteek bazituzten arazo komun batzuk, interlokutoretza behar zen, hainbat zerbitzu ematea interesgarri ikusten zen... Pentsatzen dut Topaguneak elkartei ematen dietetik zati handi bat zerbitzuak izango direla. Hori erreflejoa da, euskara elkarteetan gertatzen denaren antzeratsu. Zerbitzuetan baino gabezia gehiago sentitzen dut hausnarketan. Adibidez 10. urteurreneko jardunaldietan ikusten ziren aldagai berri batzuk; reflexio gogo batzuk... Nahiago nuke zerbitzu bat gehiago ematea baino, bat gutxiago ematea eta hausnarketa bide berri horiei sistema baten bidez heltzea.

K. IRIZAR. Topaguneak euskara elkartei, momentu honetan, batez ere, babesa eta sendotasuna ematen

“Ez da bideragarria 600.000
Ehiztun dituen hizkuntza
batean gauza bera egiten edukitzea
hainbeste jende. Informazio bera
ematen dute Azkoitian *Diario*
Vascok, *Hitzak* eta *Maxixatzenek*. Ez
daukagu ez dirurik ez eta baliabide
fisikorik ere horri eusteko”

K. IRIZAR

die. Lehen David Goliaten aurrean bezala ginen, Jaurlaritzaren aurrean, sekulako indarra eta tradizioa duen erakundearen aurrean. Topagunea da nazio mailako erakundearen artean interlokutorea. Inakik esan duenarekin guztiz ados, 10. urteurrenean atzera begiratu eta ikusi genuen egitura hori antolatzea zela egin genuena. Horrelako egitura antolatzea ez da erraza, hamar urtean 90 elkarte bildu dira federaziora. Denbora piloa behar izan dugu horretarako. Behin hori finkatuta, egitura sendotuta, orain zertan gabilta? Konturatu ginen *freaki* koadrila honek [Arrutiri begira] oso garbi izan zituela ildo filosofiko batzuk eta horiek nolabait higatu egin direla, albora utzi ditugula. Berrito ere filosofiaz, ikuspegiak hausnarketa egin beharra zegoen eta horretan abiatu dugu hurrengo hamarkada, ea lehenago bukatzen dugun. Beste kontu bat da hori egiten asmatuko dugun ala ez.

Elkarteek Topaguneari zer ematen dioten: Ikuspegi erreala ematen diote, zaila izaten baita eguneroko martxan herrietako errealitatea ikustea. Bi nafar ditugu zuzendaritzan eta horien ikuspegia guztiz desberdina da nik Urolatik izan dezakedanarekin konparatuta. Orain Arabakoa etorri da eta hura beste mundu bat da. Egunerokoan iparra ez galtzeko norabidea markatzeko ikuspegia jasotzen du Topaguneak euskara elkarteetatik.

J. L. AREXOLALEIBA. Ze pozik noan mahai-inguru honetatik! Batez ere Inakik eta zuk [Irizarrek]

lehendakari moduan aipatu duzuen eta nik orain eta hurrengo galderan egiteko neukan hausnarketa ehuneko ehun bat datozelako. Galdera honi erantzuteko konfiantzako pertsoneri iritzia eskatu diet eta honako puntuak bildu ditut. Bata, elkarrekin jaso egin behar dute Topagunetik. Bestea, elkarrekin Topaguneari bolumentan, sinesgarritasuna eta errealitatearen pertzepzioa eman behar diote. Bestea, galdetu die-dan lagunengan sumatu dut elkarrekin ate joka doazenean Topagunera ateak zabal-zabalik aurkitu dituztela. Hurrengo, Topaguneari lana osagarria da, lagundu egiten du, baina ez da erabakiorra. Bestetik, zer egin beharko luke Topaguneari? Kultur Errota garrantzitsua da, baina hori bere neurriera eraman behar da eta maila ideologikoan eta erreferentzialtasunean sakondu. Inakik hori esan du eta zuk [Irizarrek] aurrera begirako ardatza hori dela esan duzue, aupa! Ni pozik!

A. MINER. Elkarrekin Topagunea ikusteko moduan eboluzioa izan da. Elkarrekin lehendakari sei urtez izanda Topaguneko bilera batean ere ez naiz egon, lan kargatutik batetik eta praktikotasunik ikusten ez zitzaizkidan bestetik. Denborarekin ikusi dugu gauza askotarako balio duela, eztabaida foroa behintzat izan da. Erreferentzialtasuna irabazten joan da urteetan. Aurten, Doberan zuzendaritza berria dugula, bi kide joan gara lehen aldiz Topaguneko bilera batera. Badauka praktikotasuna, batetik filosofian-eta izan daiteke, baina bestetik esperientzia trukaketan. Momentu honetan zeinekin eta Elgoibarko euskara elkarrekin gaude harremanetan etorkinei buruzko programa dela-eta.

Euskara elkarrekin sorreran garrantzi handia eman zitzaion oinarri ideologikoari. Momentu honetan nondik doaz elkarrekin ildo ideologikoak? Zein dira erreferenteak?

J. L. AREXOLALEIBA. Hutsunea sumatzen dut, diskurtsoen eta liderren falta, batez ere gizartean presentzia handiagoa izateko. Lehen esan dut, bakoitza buru-belarri dabil bere horretan eta uste du ia-ia mundua hor bukatzen dela. Euskara elkarrekin eta Topaguneari batez ere ahalegina egin

behar dute gizartean, eta ez euskalgintzan, presentzia handiagoa lortzeko.

Ildo ideologikoaren inguruan, urteetan erreferente izan dira Inaki Arruti, Fernando Muniozguren zena, Julen Arexolaleiba... Adorez eta Atseginez osatu zutenek praktikan halako marko bat osatu zuten, Txepetxek-eta eraginda. Ideia haiek, beharbada, aipatu bai, baina ez dira osotasunean landu, ez dute berrilusionatzen jarraitzeko indarririk izan. Teorizazio oso bat hor da, oso-oso baliagarri izan ahal zaiguna berriro ere. Hori indartu beharreko arloa da, baina ez bakarrik euskara elkarrekin kasuan baizik eta euskararen aldeko dinamika osoan. Erronka ez da euskara elkarrekin soilik. Utopia bat, amets bat izan behar du, erakargarria izango dena.

I. ARRUTI. Lehen ere esan dut, bidegurutzean gaude. Bisiotan, diskurtsoetan, oinarri ideologikoak berregosten dago lan handia. Topaguneari kasuan esate baterako zerbitzuetan plus bat baino minus bat nahiagoko nuke eta aipatu dudan gairako baliabideak jarri, eta ea asmatzen den.

A. MINER. Dudak dauzkate horretan. Orain dela pare bat urte egin genuen elkarrekin gogoeta eta lantaldeetako baten izena zen "Berdefinizioa". Beste taldeak nolabaiteko ondorio batzuetara iritsi ginen eta "Berdefinizio"koek nahikoa lan izan zuten gutxieneko adostasunera iristen. Orduan, Topagunea saiatzea Euskal Herri guztiko euskara elkarrekin ideologian komunean zeozer bilatzen? Helburu orokorrez gain ari naiz, elkarrekin guztiei argitasuna emango dion hori aurkitzea oso zaila iruditzen zait.

K. IRIZAR. Lehen esan dudanez moduan, duela 25 urte bezala erne egon beharko dute euskara elkarrekin eta datozen erronka berriei erantzuten asmatu beharko dute. Horretarako duela 11 urte Topagunea sortzeko jarri ziren oinarri filosofikoei errepasoa egin, egungo errealitateari egokitu, eta belaunaldi berriek euren burua maila teorikoan jantzi beharko dituzte euskaraz bizitzen jarraitu eta proiektu berriak abiatu ahal izateko. Euskara elkarrekin mugimendua sortu zutenen antzera, sortzaile izan beharko dute, guneak, uneak, produktua, ikuspegi propioa eta ilusioa sortzen asmatu beharko dugu. ■

AED, 25 urte eta aurrera begira

"25 urte pasa dira baina aurrean agertzen diren erronkek beste horrenbeste urte jarraitzeko aukera ematen dute"



Zigor Masip*

IKER BARANDIARAN / GOIENKARIA

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak hogeita bost urte beteko ditu aurten. Hogeita bost urte jardun gogotsuan, euskararen erabilera arrasatearren bizi-esparru guztietara zabaltzeko helburuarekin.

Elkartea eratu zen garaian, 80ko hamarkadaren hastapenetan, euskara kinka larrian zegoen gure herrian. Arlo batzuetan, irakaskuntzan nagusiki, aurrerapausoak ematen hasiak baziren ere, arrasatearren artean euskararen erabilera hutsaren hurrena zen –hamarretik batek zeukan euskaraz berba egiteko ohitura–.

Errealitate gordin horren aurrean, soziolinguistikako hitzaldi sorta baten inguruan elkartu ziren pertsona batzuek herriko euskaldungoarentzat elkarlanerako bilgune bat antolatzeko ekimena izan zuten. Horrela, 1983ko azaroaren 29an, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarte sortzeko Batzar Eratzailea egin zen. Euskara elkarteon aitzindaria eraturik zegoen.

Huraxe izan zen abiapuntua Arrasateko euskaltzaleak batu eta lanean hasteko, euskaraz bizitzeko eremu berriak zabaltzeko, euskal kultura sustatzeko, Udalean Euskara Zerbitzua sortzeko, euskarak normalizazioari begira behar zituen neurriak bideratzeko edota exijitzeko, jendearen hizkuntza-jarreretan eragiteko...

Urterik urte AEDren jarduera hedatzen joan zen, lantzen zituen arloak (sentiberatzea, kultura, haur eta gazteen aisialdia, lan-mundua, hedabideak, emakumeak...) ugaritu ahala. Elkartearen sorreran ereindako haziaren fruitua biderkatuz

zihuan etengabe eta, hori horrela, hasiera batean elkartearen lan-ildo ezberdinak jorratzeko eratu ziren lantalde batzuek beren bide propioari heldu zioten, izaera juridiko propioaz eta kudeaketa autonomoaz, modu eraginkorragoan eta kalitatezko parametroetan lan egiteko:

1991: *Arrasate Press* eta Arrasate Telebista ekoizten zituen ARKO izan zen erakundetzen lehena.

1994: Txatxilipurdi izan zen hurrengoa haur eta gazteen aisialdiaz arduratzeko.

1995: Ekin Emakumeak elkarte eratzeko urtea izan zen, emakumeak euskarara gerturatu eta pertsona gisa garatzeko bideak zabaltzeko aldera.

1996: Euskalan erakundetu zen azkena, lan-munduan, eta bereziki enpresetan, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

Aipatu, azkenik, Arrasateko elkarteon jarduera eta lan egiteko modua eredu izan direla gaur egun Hego Euskal Herrian diharduten laurogeitaka euskara elkarteentzat. Horren adibide dugu AEDk 1990ean bultzatu zuen Euskararen Hitzarmena, ordu hartan elkarrekin harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu zuten 37 erakundek sinatu zutena. Ekimen hura mugarri izan zen erakun-

"Bigarren erronka nagusi bat, euskara elkartearen sendotzean datza. Urtez urte, hasierako asebetetze maila gainbehera etorri dela ezin genezake uka"

deak euskalduntzeko bidean gaur egun hain hedatua dagoen hitzarmengintzaren filosofia eta metodologia erabili zirelako estreinako aldiz.

Urtetako lan oparo horrek erakunde publikoen errekonozimendua ere jaso zuen 1997an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Anton Abbadia saria eman zionean Arrasate Euskaldun Dezaguni.

AED Euskara Elkartearen erronkak

25 urte pasa dira baina aurrean agertzen diren erronkek beste horrenbeste urte jarraitzeko aukera ematen dute. AED elkarteak, erronka horiek guztiak aurrera ateratzeko nahia eta gogoia bere baitan darama, bere egin du Arrasate herrian beharrezkoa den Euskararen gaineko plan osotu eta nagusia. Hartutako erabakia ez da makala baina euskarak biziraun gura badu herri honetan, beharrezkoa dela deritzogu. Plan nagusi bat non,

herrian uztarturik dauden gainontzeko euskalgintzako erakundeak inplikatzaren bidez eta sinergia mailak bilatzen diren, era antolatua baten euskara munduan lan egiten den, helburu bakarrarekin guztiok: euskararen erabilera areagotzea.

Zaila da aurrez esatea emaitza zein nolakoa izango den baina aurretik izandako ibilbideek aukera anitzak daudela argi erakusten digute, hor dago ARREPE egitasmoaren ibilbidea, helburu bakarrarekin 14 erakunde ezberdin lanean jartzeko kapaz izan dena.

Bigarren erronka nagusi bat, euskara elkartearen sendotzean datza. Urtez urte, hasierako asebetetze maila gainbehera etorri dela ezin genezake uka. Gaur eguneko egoera honi, itzulipurdia emateko garaia heldu dela argi daukagu. Euskara elkarteak izan badira egun jarraitu behar dute. Euskara elkarteek guztion beharra daukate: bazkide zein norbanako, erakunde publiko zein pribatuak, gazte zein helduak. Hasiera bateko ametsa ez da guztiz eraiki, bidea eginaz darraio.

25 urteurrena betetzen duen AED elkartearen leloak dioten bezala, Arrasate Euskaldun Dezagun. Erronka latza baina ametsak egia bihurtu daitezzen lanari tinko segi behar zaio. Guztion lana da euskarak izaera eta bizitza izatea.

** AEDko lehendakaria*



AED

Argazkiak antzeman du AED ez dela elkarte sortu berria.

Basaurin hausnarketarako unean

“Elkartearen bazkide kopurua gorantz doa etenik gabe eta horrek gure inguruan euskara bultzatzeko eta berrindartzeko premia badagoela adierazten digu”



Alberto Delgado
Fernandez de Garboa*

EUSKARABILA

Ba al dakizu zenbat euskaldun garen Basaurin? Kanean, tabernetan, dendetan entzuten denari erreparatuz gero, banaka batzuk garelara uste izango duzu zeuk ere, baina oker gaude: asko eta asko gara, baina gehienetan isolatuta sentitzen gara, ezin dugulako geure herrian euskaraz bizi”.

Kezka nagusi honek bultzatuta, 1995. urtean Basaurin antolatu ziren soziolinguistika jardunaldi batzuen ondoren, bertara hurbildu ginen hainbat euskaltzalek Euskal Herriko zenbait herritan euskararen normalkuntzarako burutzen ari ziren ahalegin eta lanen berri izan genuen, eta, ondorioz, gure herrian euskararen egoerari buruzko gogoeta sakona egitea merezi zuela ikusi genuen.

Basaurin euskaldunok sakabanatuta bizi ginela ikusten genuen eta ezinbesteko jo genuen euskaltzaleak batu, elkar ezagutu, trinkotu eta euskararen erabilera bultzatuko zuen elkarte zabal eta bateragilea sortzea. Euskarari Basaurin esparru berriak zabaltzea eta jorratzea genuen helburu nagusi, bai eta Basauriko euskaldunon bilgune izatea ere.

Ahalegin horretan, gure inguruko elkarte eta erakundeekin elkarlanean aritzeari eman genion lehentasuna, gure udalerrian euskararen normalizazioa lortzeko plangintza baten beharra ikusten baikenuen. Gutxieneko plangintza bat adostea izan da urteotan, une oro, gure jardunaren ardatzetako bat.

Urteetan aurrera egin dugu eta, neurri batean, hainbat ekimen eta egitasmo sendo finkatzea lortu dugula dudarik ez daukagu. Eskolaz kanpoko eta

kultur arloan egindako ahaleginez gain, udal agintariei gure udalerriak behar eta merezi duen plangintzaren premia azpimarratu izan diegu behin eta berrero, baina ekimen puntual batzuk adostea izan da orain arteko lorpen txikia. Hala ere, esparru horietan egin dugun lanari esker, Euskarabila Elkarte ezaguna da Basaurin eta, nolabait, euskararen munduko erreferentzia ere badela esan daiteke. Elkartearen bazkide kopurua gorantz doa etenik gabe eta horrek gure inguruan euskara bultzatzeko eta berrindartzeko premia badagoela adierazten digu.

Une honetan, udal mailako plangintza gero eta urrutiago ikusteaz gain, orain arteko ibilbidean lortu ditugun esparru gutxiak ere kolokan ikusten ditugu. Euskararen aldeko urratsak emateko udal agintarien borondate eskasa egiaztatu ahala, ataka honek gure elkarte udal erakundeekiko izan duen jarrera berraztertzea garrantzitsua da. Bestetik, Elkartearen beraren barne funtzionamendua eta gure inguruko elkarte edo erakundeen dinamikak aztertuta, oro har herrigintzaren eta bereziki guri dagokigun euskalgintzaren moteltze unean gaude la esan dezakegu.

Basauri bezalako herri batean euskara elkarte batek egun betetzen dituen eta etorkizunean bete beharko lituzkeen funtzio eta zereginenez jarduterako orduan, zaila da ezkortasunari ihes egitea, egoerari buruzko hausnarketa eginda, arrazoi ugari eta desberdinak direla medio, aurrera begirako nolabaiteko geldiene batean gaudela sumatzen dugulako.

"Basauri bezalako herri batean euskara elkarte batek egun betetzen dituen eta etorkizunean bete beharko lituzkeen funtzio eta zereginenez jarduterako orduan, zaila da ezkortasunari ihes egitea, egoerari buruzko hausnarketa eginda, arrazoi ugari eta desberdinak direla medio, aurrera begirako nolabaiteko geldiene batean gaudela sumatzen dugulako"

Hala ere, LARRUN aldizkariak gure egoera eta funtzionamenduaren gaineko gogoeta eskatzen digun ia une berean, Euskarabila Elkartean datozkigun erronka berriei nola heldu eta erantzun hausnartzen ari gara. Batetik, elkarte bera barrutik nola sendotu eta berrindartu aztertzen ari gara, sendotze horrek herri mailan bete behar ditugun bestelako zeregin eta funtzioei behar den bezala ekitea ahalbidetuko digu eta. Bestetik, benetako elkarlana gauzatzeko ahaleginetan jarraitu behar dugula uste dugu, baina, horrez gain, euskaldunoi gure hizkuntzaren egoera hobetzeko beharra sentiaraztea, euskalgintzako eragileak aktibatzea eta zeregin horretan laguntzeko gogoia piztea izango dira gure erronka nagusienak. Sentitu, pentsatu eta ekin! Hitz polit bezain egingarriak izango al dira!

** Euskarabilako kidea*

Lutxo Egia eta Harkaitz Zubiri Idazleekin solasean egitasmoan.



1989-2009, berbAROA

"Gure egitekoa profesionalizatu dugu, euskararen aldeko lanean eraginkor izateko modua horixe dela sinesten dugulako"



BERBARO

Nahia Zarzosa Aizpurua,
Gorka Barruetabeña Iturriaga*

1989an sortu zen Berbaro Elkarte (www.berbaro.com). Durangoko euskaltzale batzuk batu eta beste herri batzuetako erreferentziak jarraituta, zuzendaritza-batzordea, azpitaldeak, egoitza... jarri genituen martxan. Gehienok, jakina, ez ginen euskara-normalkuntzako profesionalak, gehienok intuizioarekin, motibazioarekin eta euskaraz bizitzeko gogorekin parte hartzen genuen ekitaldien antolaketan.

Berberoren kimuak

Intuizioz hasi genuen ibilbidea baina urteetan Berbaron lan egin duten langile, boluntario eta zuzendaritzako kideen lanari eskerrak, gure egitekoa profesionalizatu dugu, euskararen aldeko lanean eraginkor izateko modua horixe dela sinesten dugulako. Hala, Berbarok, apurka-apurka, fruituak emateari ekin zion; *zuhaitzak*, gero eta sendoago, *berbaro-kimuak* emateari ekin zion:

Durangoko Liburu eta Disko Azokan umeei begira prestatzen den **Haur Literatur Aretoa** Berbaro da. Ume eta gaztetxoan artean euskarazko irakurzaletasuna sustatzea helburu duen egitasmu hau Liburu Azokan ez ezik, Durangaldeko beste hainbat herritara ere eramaten dugu. Iaz adinez nagusi egin zen, hemezortzi urte bete zituen.

Gaur egun 8.000 etxetara heltzen den **Anboto aldizkaria** ere Berbaro da. Durangaldeko astekari bakarrak 24.000 irakurle inguru ditu eta proiektu honen hegapean sortu dira bai web gunea (www.anboto.org) bai eta Anboto Irratia ere.

di-da Koop. Elkarte (www.di-da.com) Berbaro da. Komunikazioa bere zabalean lantzen duen enpresa honetan hamar lagunek egiten dute lan eta besteak beste azken hiru Korrikak eta Ibilaldiak eta 2007ko Bizkaiko Bertsolarien Txapelketa antolatu ditu.

Durangoko Euskara Zerbitzua ere Berbaro da. Berbaroren bi langilek kudeatzen dute Durangoko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Udaleko euskara teknikariarekin batera 1999tik.

Durangoko **Plateruena Kafe Antzokia** (www.plateruena.net), jakina, Berbaro da, baina historian atzera egin behar dugu eraikin honen hasierako teilak non jarri genituen gogoratzeko: elkarteak zituen proiektuetarako dirua lortzeko Berbaro taberna zabaldu genuen 1994an. Horrela konturatu ginen hizkuntza ohiturak aldatzea oso zaila bada ere, egunero zabalik dagoen *txiringito* batean batzen den jendearen hizkuntza ohiturak euskararantz bideratzerik badela.

Proiektu "txiki" hartatik lortu genuen esperientziak eta ilusioak bultzatuta, Durangalde mailan eta Euskal Herri osoan erreferente bihurtuko zen euskararentzako "txoko" handiago bat erditu genuen, proiektu erraldoi hura gauzatzeak itzelezko esfortzua eskatu zigulako eta azken batean... gure barren-barrenetik sortutako *umea* ere badelako. Gaur egun, Plateruena antzokiak hogeita hamar langile ditu, mundu osoko hainbat eta hainbat musikari eta artista hurreratzen da bertara, iaz 130 ekitaldi inguru antolatu ziren eta 30.000 lagun pasatu zen bertatik. Koxkortuz doa gure umea; datorren urrian beteko ditu lau urte.

Berbaro taberna martxan jarri eta urtebete geroago, goiko pisuan gure **bazkideentzako txokoa** ere zabaldu genuen, gure herrian jatekoaren inguruan batzeko daukagun ohitura ezin saihestuz!

Etokizuneko Berbaro

Antzokiaren proiektua errealitate bihurtu genuenean, elkarteak etorkizunean hartuko zuen norabidea definitzeko gogoeta prozesua egin zen bazkideekin batera, eta gogoeta prozesu hark finkatu du azken urteetako gure lan ildoak:

Ume eta Gazte Arloa sendotzea. Gazteei zuzendutako ekintzak antolatu eta gazteak elkartera nola erakarri asmatu nahian gabiltza. Gure erronka: egun elkartera hurreratzen diren gaztetxoak etorkizuneko *berbarotar* izan daitezela.

Bestalde, Haur Literatura Aretoa inoiz baino indartsuago badago ere, egungo beharrian eta teknologia berrietara egokitu eta itxura fresko eta modernoagoa eman nahian gabiltza.

Herrian presentzia handiagoa izatea. Herrian antolatzen diren hainbat eta hainbat ekintzen gidari garen arren, egiten duguna eta transmititu nahi duguna hobeto helarazi gura dugu, egindakoa *ikusten ez*

bada, sarritan egin izan ez balitz bezala delako.

Etorkin gazteak euskalduntzea. Ume eta gazte etorkinek euskara ikasteko dituzten arazoei aurre egin nahian, Berbaro elkarteak AEKrekin eta Udalarekin elkarlanean etorkin hauentzako eskolaz kanpoko errefortzu klaseak antolatu ditu, umeak euskarara era ludiko batean hurbil daitezen.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi epe laburrean martxan jarriko dugun euskara hutsezko telebista. Telebista hau ere Berbaro izango da, besteak beste. Berbarok zirikatu baitzituen Gerediaga Elkartea, *Anboto* eta beste erakunde batzuk, Hamaika ikus-entzunezkoak S.L.rekin batera eskualdeko kalitatezko telebista euskaldun eta lehiakorra sortzeko.

Datorren urtean 20 urte beteko ditu Berbaro elkarteak eta zer ospatu badugunez (aurreko lerrootara begiratzea baino ez dago!), urteurrena behar bezala ospatzeko prestaketa lanetan buru-belarri aurkituko gaituzu hemendik aurrera. Zer... bazatoz?

** Berbaro Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kidea, di-da Koop. Elkarteko gerentea*

Plateruena
Kafe Antzokia
Durangon.



Euskalgintza aktibatu eta sarea sendotzea beharrezkoa da

"Donostia hiribururik euskaldunena izanda, askok euskararen arloari ez diote beharko lukeen lehentasunik ematen"



Ainara Vázquez*

Bagerak, Donostiako Euskaltzaleen Elkartea izanik, ez du Euskal Herrian diren beste edozein euskara elkarteekiko desberdintasun handirik bere barne funtzionamenduan, eguneroko jardunean eta helburuetan. Hau da, Bageraren funtzio nagusiak euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta hedapena dira, etorkizunean euskaraz biziko den Donostia bat izateko. Bide horretan hainbat ekimen burutzen ditugu, batzuk euskararen normalizazioan eragiteko xedez; hala nola, Mintzalagun programaren bidez euskararen erabilera bultzatuz, Donostiako ekitaldi nagusietan euskararen erabilera neurtuz, eta abar. Beste ekimen batzuk berriz, euskal kultura sustatzeko: Mari Domingi ikastetxez ikastetxe, San Joan lore-sortak, Kantuz taldeak, kultur emanaldiak, ... Guztiek parte hartze ahalik eta zabalena izateko asmoa dute, batzuek beste batzuek baino hedapen murriztagoa izango dutela jakin arren. Gehienetan, elkarlana beharrezkoa eta desiragarria da; bai beste enprekin, norbanakoekin edo taldeekin, euskalgintzarekin eta baita administrazioarekin ere. Administrazioen artean, Donostiako Udalarekin dugu harremanik zuzenena, eta hainbat ekimen antolatzen ditugu elkarlanean. Hala ere, sekula ezin dugu ahaztu Bagerari Udalaren begirale eta akuilu izatea ere badagokiola, normalizazioaren helburutik urrundu ez dadin, besteak beste, nagusiki, udan Donostian egiten diren aisialdi ekimen garrantzitsuenen behaketak (Aste Nagusian, Zinemaldian, Jazzaldian eta beste) eta

Donostiako Euskararen Plan Orokorren jarraipena eginez.

Hau da Bageraren egunerokotasuna. Aurrera begira berriz, beharrezkoa iruditzen zaigu, lehenik, arrakasta duten ekimenekin jarraitzea eta ahal den heinean horiek zabaltzea eta sendotzea, dela jende kopurua handituz, dela auzo gehiagotara zabalduz edota maiztasuna handituz. Bigarrenik, birmoldaketa edo planteamendu berria behar duten ekimenak eta proposamen berriak jaso eta bideratzea. Horretarako ezinbestekoa izango da bagerakide gehiagoren parte hartzea lortzea; bai ekimen puntualetarako eta bai aldizkako jardueretarako. Azkenik, Bageraren etorkizuneko egitasmo garrantzitsuenetako bat, Donostian dagoen euskalgintzaren sarea zabaldu eta sendotzea izan beharko luke dauden harremanak sendotuz eta berriak sortuz.

Hasieran esan dugu Bagerak ez duela beste elkarteekiko desberdintasun handirik, baina Bagerak Donostian egiten du lan, hiriburu batean, eta, gainera, hiribururik euskaldunenean. Ezaugarri honek berezitasunak sortzen ditu lan egiteko orduan. Hauetako batzuk aipatu baino lehen, esan behar da guztiek badutela beren alde ona eta beren alde txarra, zoritxarrez. Batetik elkartearen tamaina izango litzateke berezitasunetako bat; gaur egun Bageran 2 langile aritzen gara, honek ematen dituen aukerekin. Hala ere, horrek bagerakideen lasaitzea dakar eta langileen esku uzten da lanaren ardurarik handiena, beraien parte har-



Mintzalagunakoekin Biasterira egindako bidaiia.

“Ezin aipatu gabe utzi kultura arloan hiriburu batean dagoen lehia. Egunero makina bat ekitaldi antolatzen dira Donostian eta Bagerak hutsuneak antzematen eta eskaintzaren osagarri izaten asmatu behar du”

tzea, aberasgarria izateaz gain, premiazkoa dela ahaztuta. Bestetik, honekin lotuta, hiriburuan hainbat arlotako elkarte guztiz ezberdinak biltzen dira eta maiz norbanakoek nahiago duten beste arlo bati eskaintzen diote beren denbora. Neurri batean horretan eragiten du Donostia hiribururik euskaldunena izateak, beste hiriburuak baino egoera hobea izanda, askok euskararen arloari ez diotelako beharko lukeen lehentasunik ematen. Dena den, elkarte eta erakunde desberdin askoren bilgune izateak, elkarlanerako aukera asko ematen ditu arlo diferente gehiago jorratu ahal baita. Egia da bestalde, hiriburu batean erdigune bat izatea oso zaila dela eta Bagerak hainbat eta hainbat ekimen auzoetan eta, hein batean, auzotarrantzako antolatzen

dituela, bertakoen laguntzaz. Honek, askotan, auzo batzuetara ezin iristea eragiten du, eta zabalpenean hanka motz gelditzea. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi kultura arloan hiriburu batean dagoen lehia. Egunero makina bat ekitaldi antolatzen dira Donostian eta Bagerak hutsuneak antzematen eta eskaintzaren osagarri izaten asmatu behar du. Gaur egun, Udala da kultur ekitaldi gehien antolatzailea, eta, zoritxarrez, eskaintzaren zatirik handiena gazteleraz izaten da, baita beste ekimen pribatuetatik sortzen den eskaintzaren zati handiena ere. Horretan ere lan egin behar du Bagerak, administrazioaz kanpoko ekimenak euskaraz izan daitezen. Beste biderik ez dago euskararen normalizazioa lortuko badugu.

** Bagera elkarteko langilea*

LARRUN pentsamendu aldizkaria
ARGIArekin batera banatzen da

Koordinatzailea: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria

Posta Elektronikoa:

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP

SCOOP.